TOLOSAKO UDALA

PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN PLEGUA, TOLOSAKO UDALEKO KULTURA, FESTAK ETA GAZTERIA SAILAK ANTOLATUTAKO IKASTAROAK EMATEKO ZERBITZU-KONTRATUA ARAUTUKO DUENA, PROZEDURA SINPLIFIKATU BIDEZ ADJUDIKATU BEHARREKOA.

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARTICULARES QUE HAN DE REGIR EN EL CONTRATO DE SERVICIOS PARA LA IMPARTICIÓN DE CURSOS ORGANIZADOS POR EL DEPARTAMENTO DE CULTURA, FIESTAS Y JUVENTUD DEL AYUNTAMIENTO DE TOLOSA, A ADJUDICAR POR PROCEDIMIENTO ABIERTO SIMPLIFICADO.

I.- AURREKARIAK

Tolosako Udalak 1987an Antonio Maria Labayen kultur etxea inauguratu zuenetik, herritarrek aisialdian prestakuntza aberasgarria eta positiboa jasotzeko aukerak eskaini nahi izan ditu eraikin honetan.

Eduardo Mocoroa musika-eskolak herritarrei musikaren arloan arautu gabeko prestakuntza eskaintzen dien bezala, Antonio María Labayen kultur etxeak beste arlo batzuetan integratzeko eta, aldi berean, zaletasun osasungarriak garatzeko balioko dien eskaintza egin nahi die.

Horretarako antolatzen dira pintura, zeramika, argazkigintza, antzerkia, balleta, dantza eta ehozirien eta patchworkaren ikastaroak, eta urtero errepikatzen den matrikulazio eta partaidetza ugaria da zerbitzu honekin aurrera jarraitzeko arrazoia.

Eskaintza handitzeak eta matrikulak handitzeak kultur etxeaz gain beste eraikin batzuk ere erabili beharra ekarri du. Hori dela eta, ikastaroak emango dira Gorosabel izeneko eraikinean edo gaitu daitezkeen beste eraikin batzuetan.

I.- ANTECEDENTES

Desde que el Ayuntamiento de Tolosa inauguró en 1987 la casa de cultura Antonio María Labayen, ha querido ofrecer en este edificio oportunidades para que la ciudadanía reciba una formación enriquecedora y positiva en el tiempo libre.

Al igual que la escuela de música Eduardo Mocoroa ofrece a la ciudadanía una formación no reglada en materia musical, la casa de cultura Antonio María Labayen pretende hacerles una oferta que les sirva para integrarse en otras áreas y, al mismo tiempo, desarrollar aficiones saludables.

Para esto se organizan los cursos de pintura, cerámica, fotografía, teatro, ballet, danza y encaje de bolillos y patchwork, y la numerosa matriculación y participación que cada año se repite es motivo para seguir adelante con este servicio.

La ampliación de la oferta y el aumento de matrículas ha hecho necesario emplear otros edificios además de la casa de cultura. Por este motivo, también se impartirán cursos en el edificio denominado Gorosabel o en otros que, en su caso, se puedan

ESKU90fb86d3-f97e-4373-9b8f-628cac421eea

TOLOSAKO UDALA

habilitar.

II.- XEDEA

Kontratu honen xedeak honakoak biltzen ditu:

- Sailak antolatutako ikastaro hauek ematea, bai kultur etxean, bai beste eraikin batzuetan: pintura, zeramika, balleta, dantza garaikidea, antzerkia, ehoziriak eta patchworka, eta argazkia.

- Gainera, kontratua indarrean dagoen bitartean adostutako beste ikastaro batzuk ematea, udalaren eta enpresaren ekimenez sortuak, eta inola ere kontratua aldatzea ekarriko ez dutenak.

II.- OBJETO

El objeto de este contrato comprende lo siguiente:

- Impartir los siguientes cursos organizados por el departamento tanto en la casa de cultura como en otros edificios: pintura, cerámica, ballet, danza contemporánea, teatro, fotografía y encaje de bolillos y patchwork.

- Impartir, además, otros cursos acordados durante la vigencia del contrato, creados por iniciativa municipal y empresarial y que en ningún caso supondrán una modificación del contrato.

III.- GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK

Enpresa esleipendunak kontratu hau gauzatzeko behar diren langileak jarriko ditu, aplikatzekoa den lan-araudiaren arabera, eta Gizarte Segurantzari eta langileei egin beharreko ordainketak egunean izan beharko ditu. Udalak edozein unetan eskatu ahal izango ditu, kontratua gauzatzen den bitartean, alderdi hori egiaztatzeko.

Kontratuari atxiki beharreko lantaldea honako hauek osatuko dute, gutxienez: argazkigintzako irakasle bat, zeramikako irakasle bat, eskulanetako irakasle bat, antzerkiko irakasle bat, ehoziri eta patchworkeko irakasle bat, dantzako eta balleteko bi irakasle eta dantzako eta balleteko lanetarako koordinatzaile bat.

III.- RECURSOS HUMANOS Y MATERIALES

La empresa adjudicataria aportará el personal necesario para la ejecución de este contrato, con arreglo a la normativa laboral de aplicación, debiendo estar al corriente de sus pagos a la Seguridad Social y a sus empleados, pudiendo ser requerida por el Ayuntamiento en cualquier momento, a lo largo de la ejecución del contrato, para comprobar tal extremo.

El equipo de trabajo a adscribir al contrato estará compuesto, al menos, por las siguientes personas: un profesor de fotografía, un profesor de cerámica, un profesor de manualidades, un profesor de teatro, un profesor de encaje de bolillos, dos profesores de danza y ballet y un coordinador para los trabajos de danza y ballet.

ESKU90fb86d3-f97e-4373-9b8f-628cac421eea

Taldeko kide guztiek euskaraz komunikatzeko gaitasuna izan beharko dute zerbitzuaren erabiltzaileekin, eta adingabeekin lan egingo duten pertsona guztiek ziurtagiri bat izan beharko dute, sexu-izaerako delituen erregistroan sartu ez direla frogatzeko.	Todos los miembros del equipo deberán tener capacidad de comunicarse en euskera con los usuarios del servicio y todas las personas que vayan a trabajar con menores de edad deberán poseer un certificado que demuestre la no-inclusión en el Registro de Delitos de Naturaleza Sexual.
Enpresa esleipendunak kontratu hau gauzatzeko behar diren material eta kontsumigarri guztiak jarriko ditu. Tolosako Udalak Antonio Maria Labayen Kultur Etxeko instalazioak utziko ditu kontratu hori gauzatzeko, eta bere gain hartuko ditu uraren, argiaren eta berokuntzaren horniduraren kostuak.	La empresa adjudicataria aportará todos los materiales y consumibles necesarios para la ejecución de este contrato. El Ayuntamiento de Tolosa cederá las instalaciones de la Casa de Cultura Antonio María Labayen para la ejecución de dicho contrato, asumiendo los costes de suministros de agua, luz y calefacción.
Izen-emateak, zerrendak eta kobrantzak udalak egingo ditu.	Las inscripciones, listas y cobros los realizará el ayuntamiento.
Zerbitzuaren komunikazioa (kartelak, webgunea, sare sozialak...) udalak egingo du.	La comunicación del servicio (carteles, web, redes sociales...) la realizará el ayuntamiento.
IV.- KONTRATUAREN EZAUGARRIAK	**IV.- CARACTERÍSTICAS DEL CONTRATO**
Kontratua osatuko duten kontzeptu nagusiak dira, batetik, irakaskuntza, eta, bestetik, dantza eta ballet ikastaroko irakasle-taldearen koordinazioa.	Los principales conceptos que conformarán el contrato son la docencia, por un lado, y la coordinación del equipo docente del curso de danza y ballet, por otro.
Hauek dira eskainiko diren ikastaroak eta iraupenak	Los cursos que se ofertarán son los siguientes y de esta duración:

ESKU90fb86d3-f97e-4373-9b8f-628cac421eea

TOLOSAKO UDALA

materia	horas por curso	horario de referencia	personal
Teatro	180	Dos horas tres veces por semana. 2 grupos.	1
Fotografía	200	Dos horas dos veces por semana. 1 grupo.	1
Encaje de bolillos	120	Una clase semanal de cuatro horas, 1 grupo.	1
Manualidades	120	Dos clases semanales de dos horas. 2 grupos.	1
Pintura	720	Dos clases semanales de dos horas. 6 grupos.	2
Cerámica	360	Dos clases semanales de dos horas. 3 grupos.	1
Ballet	600	Dos clases semanales de una hora. 10 grupos.	2
Balet avanzado	45	Dos clases semanales de hora y media. 1 grupo.	1
Puntas	120	Una clase semanal de una hora. 4 grupos.	1
Danza contemporánea	90	Dos clases semanales de hora y media. 1 grupo.	1
Coordinación	135	Horario en función de las necesidades.	1

Eskaintza hori, ahal dela, urriaren hasieratik ekainaren amaierara arte egingo da. Hala ere, uztailean edo irailean ikastaro bereziak egiteko aukera aurreikusten da.

Esta oferta se desarrollará preferiblemente desde principios de octubre hasta finales de junio. No obstante, se prevé la posibilidad de realizar cursos especiales en julio o septiembre.

Ikastaro bakoitzean 30 aste kalkulatzen dira, eta Aste Santuko, Gabonetako eta inauterietako opor-egunak deskontatu beharko dira.

En cada curso se estiman 30 semanas a las que habrá que descontar los días laborables de vacaciones de Semana Santa, Navidad y Carnaval.

Klaseak goiz eta arratsalde eman ahal izango dira.

Las clases podrán impartirse por la mañana y por la tarde.

Hilean behin bilerak egingo dira enpresako ordezkarien eta kontratuaren arduradunaren artean. Bilerak honako hauek izango dira:

- Taldeen egoera: kuantitatiboa eta kualitatiboa.
- Irakasleen gorabeherak, hala badagokio.
- Zerbitzua emateko udal-baliabideen egoera: berritu edo aldatu beharreko materialak, eskuratu beharreko material didaktikoa.
- Ikasleen eta irakasleen kexak eta iradokizunak, hala badagokio.

Se realizarán reuniones mensuales entre los representantes de la empresa y el responsable del contrato, que consistirán en:

- Situación de los grupos: cuantitativa y cualitativa.
- Incidencias del profesorado, en su caso.
- Situación de los recursos municipales para la prestación del servicio: materiales a renovar o modificar, material didáctico a adquirir.
- Quejas y sugerencias, en su caso, tanto del alumnado como del profesorado.

Lehenengo edo bigarren hilabetean erabakiko da zein obra antzeztuko den

En el primer o segundo mes se decidirá cuál es la obra que se representará como

ESKU90fb86d3-f97e-4373-9b8f-628cac421eea

urte amaierako lan gisa.

Hiru hilean behin, atal bakoitzeko irakaslearekin edo taldeko arduradunarekin bilduko da, denbora horretan emandako zerbitzua baloratzeko:

- Helburuen betetze-maila
- Hobetu beharreko alderdi didaktikoak
- Antolaketaren azterketa

Ikastaroaren amaieran balorazio orokorra egingo da, eta honako hauek aztertuko dira:

- Ekipoen bilakaera: bajak, altak, adinak...
- Hurrengo ikasturterako hobekuntza posibleak.
- Urte amaierako ekitaldien emaitzak (antzezlana, dantza-jaialdia, erakusketak...)

Gainera, kontratuaren arduraduna enpresaren ordezkariarekin harremanetan jarri ahal izango da gorabeheraren bat gertatzen den bakoitzean, unean uneko erantzuna behar izanez gero nola jokatu erabakitzeko.

trabajo de fin de año.

Cada tres meses se reunirá con el profesor o responsable de equipo de cada sección para valorar el servicio prestado en este tiempo:

- Grado de cumplimiento de los objetivos
- Aspectos didácticos a mejorar
- Análisis organizativo

Al final del curso se realizará una valoración general en la que se analizarán:

- Evolución de los equipos: bajas, altas, edades...
- Posibles mejoras para el curso siguiente.
- Resultados de los actos de fin de año (obra de teatro, festival de danza, exposiciones...)

Además, el responsable del contrato podrá ponerse en contacto con el representante de la empresa cada vez que surja una incidencia, para acordar la forma de proceder en caso de que sea necesaria una respuesta puntual.

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU90fb86d3-f97e-4373-9b8f-628cac421eea**
Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan: ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110***
Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110***